

UDALBATZA BERRIA ERATZEKO BILKURAREN AGIRIA 2023-06-17

Organoa: Udal Plenoa
Izaera: Eratze bilkura
Deialdia: Lehena
Eguna: 2023-06-17
Ordua: Hasiera 12:00etan.
Bukaera 12:30etan.
Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Bertaratuak:

Zinegotziak, 2023ko ekainaren 7ko Bergarako Hauteskunde Batzordeak aldarrikapen aktaren hurrenkera jarraitua:

- .- Izaro Elorza Arregi andrea (EH Bildu)
- .- Xabier Igartua Loidi jauna (EH Bildu)
- .- Lierni Altube Moyua andrea (EH Bildu)
- .- Anik Maitane Zubizarreta Arturo andrea (EH Bildu)
- .- Iñigo Ruiz Barron jauna (EH Bildu)
- .- Iñaki Olalde Aitzelai jauna (Bildu)
- .- Saioa Arkonada Perez andrea (EH Bildu)
- .- Iker Oñate Ayastuy jauna (EH Bildu)
- .- Asier Lauzurika Arrondo jauna (EH Bildu)
- .- Ekhiñe Mendi Altube andrea (EH Bildu)
- .- Idoia Aierbe Lizarralde andrea (EH Bildu)

- .- Miren Amaia Erostarbe Letamendi andrea (EAJ-PNV)
- .- Xabier Mugarza Ayastui jauna (EAJ-PNV)
- .- Itziar Alonso Aguirre andrea (EAJ-PNV)
- .- Eva Maria Gayubo Cazorla andrea (EAJ-PNV)
- .- Jon Kepa Guerricagoitia Arrien jauna (EAJ-PNV)
- .- Claudia Angelica Valdivieso Ascui andrea (EAJ-PNV)

Idazkaria: Iñigo Roldan Catalan jauna

AZTERGAIK

1. ADINEKO MAHAIA ERATZEA. (ART. 195.2 HAOLO eta erregelamenduaren 37.2 artikulua).
2. ZINEGOTZIEN EGIAZTAGIRIAK EGIAZTATZEA.
3. ZINEGOTZIEN KARGUAREN ZINA EDO HITZEMATEA. (ART. 108.8 HAOLO).
4. KORPORAZIOA ERATZEKO ADIERAZPENA.
5. OÑATIKO UDALEKO ALKATEA HAUTATZEA.
6. OÑATIKO UDALEKO ALKATEAREN KARGUAREN ZINA EDO HITZEMATEA ETA KARGUAZ JABETZEA.

Akta honen parte da saioaren soinu-grabazioaren ondoriozko fitxategia. MP3 formatuko fitxategi bat da, Udaleko Zerbitzariaren saioko karpeta dagoena, osoko bilkuraren datarekin.

Udalbatza eratzeko bilkura egin da, 2023ko maiatzaren 28an egindako udal-hauteskunde ondoriotz, honako hauetan xedatutakoa betetzeko:

- 5/1985 Lege Organikoa ekainaren 19koa Hauteskundearen Araubide Orokorri buruzkoa.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duena.
- 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duena.

BILERA:**1.- Adin-mahaia eratzea.**

Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren **37. artikuluko** 1. eta 2. atalek honakoa xedatzen dute:

"Udalbatzek jendaurreko bilkura egingo dute hauteskundeak egin eta hogeigarren egunean, zinegotzi hautetsien aldarrikapenaren aurka hauteskunde-azibidezko errekurtsioa aurkeztu ezean; kasu horretan, hauteskudeen berrogeigarren egunean eratuko da.

Horretarako, adin mahai bat eratuko da, ekitaldian dauden hautetsietatik zaharrenak eta gazteenak osatua. Udalbatzako idazkaria izango da idazkaria."

Zentzu berean, HAOLoren **195.2 artikulua** honako hau dio:

"Horretarako, adineko mahai bat eratzen da, ekitaldian dauden hautetsietatik zaharrenak eta gazteenak osatua. Korporazioko idazkariak jardungo du idazkari."

Idazkari jaunak adierazi du, zinegotzi hautetsien zerrendaren eta espedientean agertzen den jaiotza-dataren arabera, adin mahaia hauek osatuko dute: Idoia Aierbe Lizarralde andrea, lehendakaria -zinegotzi hautetsi zaharrena- eta Ekhiñe Mendi Altube andrea -zinegotzi hautetsi gazteena-.

Mahaiko lehendakariak (Aierbe Lizarralde andreak) adin-mahairen eraketa aldarrikatu du.

2.- Zinegotzien egiaztagiriak egiaztatzea.

HAOLoren **195. artikuluko 3. atalak** hau dio: *"Mahaiak egiaztatuko ditu aurkeztutako izendapen-agiriak edo hautetsien nortasunaren egiaztagiriak, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak Udalari igorritako ziurtagirietan oinarrituta".*

Idazkariak mahaiari proposatu dio aurkeztutako izendapen-agiriak eta zinegotzi hautetsien nortasunaren egiaztagiriak egiaztatuz jotzea. Era berean, idazkariak proposatuta adin-mahaia egiaztatuko du zinegotzi hautetsiek balizko ezgaitasun kasuei eta jardueri buruzko eta ondare-ondasunen aitopenen aurkezteko betebeharrak bete dutela, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 75.7 artikuluen arabera. Beraz, zinegotzi hautetsiek betetzen dituzte kargua zin egiteko edo hitz emateko baldintzak.

2

3.- Zinegotzien karguaren zina edo hitzmatea.

HAOLoren **108.8 artikulua** honako dio: *"Karguaz jabetzeko unean eta beren kargu guztiak hartzeko, hautagai hautetsiek Konstituzioari men egingo diotela zin egin edo hitzeman behar dute, bai eta dagozkien lege edo erregelamenduetan aurreikusitako gainerako baldintzak beteko dituztela ere".*

Lanpostuaz jabetzeko, kargu eta funtzio publikoetan zin egiteko edo hitzmateko formula ezartzen duen apirilaren 5eko 707/79 Errege Dekretuan jasotako zin-egite edo hitzmatearen formula erabiliko da. Dekretu horren 1. artikulua honako hau adierazten du:

«Administrazioan kargu edo funtzio publikoetara jabetzeko egintzan, kargua eman behar duenak honako galdera hau egingo dio izendatuari:

«Zin egiten al duzue edo hitzmaten al duzue, zuen kontzientziagatik eta ohoreagatik, zinegotzi-karguaren betebeharrak zintzotasunez beteko dituzula, erregearekiko leialtasunez, eta konstituzioa estatuaren oinarritzko arau gisa bete eta betearaziko duzula?»

Lanpostuaz jabetu behar duenak baiezko erantzun soil batez erantzungo dio galdera horri.

Idazkariak zinegotzi hautetsi guztiak izendatuko ditu, Bergarako Hauteskunde Batzordearen aldarrikapen-aktaren hurrenkeraren arabera, kargua zin-egiteko edo hitzmateko. Zinegotziek banan banan dagozkion zin-adierazpena edo hitzmatea egin dute. EH-Bildu eta EAJ-PNVko zinegotzi guztiak legean aginduz zin egin/agindu dute esanez beren zinegotzi karguak beteko dituztela.

Idazkariak adin-mahaiari proposatu dio adieraztea zinegotzi hautetsiek 707/1979 Errege Dekretuaren arabera konstituzioa beteko dutela zin egin edo hitzeman dutela. Adin-mahaia adierazi du zinegotzi hautetsiek Konstituzioa beteko dutela zin egin edo hitzeman dutela, indarrean dagoen legeriaren arabera.

4.- Korporazioaren eraketaren adierazpena.

HAOLOren **195.4 artikulua** xedatzen duenez, aurreko eragiketa egin ondoren, adin-mahaiak udalbaltza eratutzat joko du zinegotzi hautetsien gehiengo osoa biltzen bada. Bestela, bi egun geroago egingo da bilkura, eta Korporazioa eratuko da, bertaraturako zinegotzien kopurua edozein dela ere.

Idazkariak adierazi du Oñatiko Udaleko 17 zinegotziak bertaratu direnez, adin mahaiari proposatzen diola Udalbaltza eratutzat jotzea. Adineko mahaiak Udalbaltza eratutzat jo du, Udalbatzako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoa bertaratu delako.

Udalbatza zinegotzi hauek osatuko dute:

- Izaro Elorza Arregi andrea (EH Bildu)
- Xabier Igartua Loidi jauna (EH Bildu)
- Lierni Altube Moyua andrea (EH Bildu)
- Anik Maitane Zubizarreta Arturo andrea (EH Bildu)
- Iñigo Ruiz Barron jauna (EH Bildu)
- Iñaki Olalde Altelai jauna (Bildu)
- Saioa Arkonada Perez andrea (EH Bildu)
- Iker Oñate Ayastuy jauna (EH Bildu)
- Asier Lauzurika Arrondo jauna (EH Bildu)
- Ekhiñe Mendi Altube andrea (EH Bildu)
- Idoia Aierbe Lizarralde andrea (EH Bildu)

- Miren Amaia Erostarbe Letamendi andrea (EAJ-PNV)
- Xabier Mugarza Ayastui jauna (EAJ-PNV)
- Itziar Alonso Aguirre andrea (EAJ-PNV)
- Eva Maria Gayubo Cazorla andrea (EAJ-PNV)
- Jon Kepa Guericagoitia Arrien jauna (EAJ-PNV)
- Claudia Angelica Valdivieso Ascui andrea (EAJ-PNV)

5.- Oñatiko Udaleko alkatea hautatzea.

3

HAOLOren **196. artikulua** honakoa xedatzen du: "*Udalbatza eratzeko bilkura berean alkatea hautatuko da, honako prozedura honen arabera:*

- a) *Hautagai izan daitezke zerrendaburu diren zinegotzi guztiak.*
- b) *Haietakoren batek zinegotzien botoen gehiengo osoa lortzen badu, alkate izendatuko dute.*
- c) *Horietako batek ere ez badu gehiengo hori lortzen, dagokion udalerrian herri-boto gehien lortu dituen zerrendako burua izendatuko da alkate. Berdinketa gertatuz gero, zozketa bidez ebaziko da."*

Adineko Mahaiko lehendakariak zerrendetako buru diren zinegotzietan galdetu die ea hautagaitza aurkeztu nahi duten Oñatiko Udaleko alkatea aukeratzeko eta, hala badagokio, jarduteko programa azaltzeko. Dagozkien zerrendetako buru diren zinegotzietan kontsulta egin ondoren, adineko mahaiko lehendakariak adierazi du Izaro Elorza Arregui andrea alkate hautaketarako hautagaitza baino ez dela aurkeztu.

Erostarbe andreak hitza hartu du bere taldearen erabakia justifikatzeko.

Idazkariak adierazi du Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren **102.3 artikuluan** dioena: "*Isilpeko bozketa pertsonak hautatzeko edo kargutik kentzeko baino ezin izango da erabili.*" Beraz, zinegotzi bakoitzak boto-orri zuri bat izango du, botoa ematen duen hautagaiaren izen osoa idatz dezan. Ondoren, zinegotzietan prestatutako hautestontzian sartuko dute boto-txartela.

Zinegotzi guztiek beren boto-orria sartu ondoren, mahaiburuak banan-banan iragarri du boto-txartel bakoitzaren edukia, eta idazkariak botoak zenbatu ditu.

Zenbaketa egin ondoren, mahaiburuak emaitza hau iragarri du:

- * Izaro Elorza Arregui: HAMAIKA BOTO (11).
- * Boto zuriak: SEI (6).

Emaitza ikusita, eta HAOLOren 196. artikuluekin bat etorritik, eta hautagaiak botoen gehiengo osoa lortu duela ikusita (gutxienez 9 boto), idazkariak Izaro Elorza Arregui Oñatiko Udaleko alkate izendatzea proposatu dio adin-mahaiari. Horregatik guztiagatik, adin mahaiak Oñatiko Udaleko alkate-udalburua Izaro Elorza Arregui izendatzea aldarrikatu du.

6.- Udaleko alkatearen kargua zin egitea edo hitzematea eta karguaz jabetzea.

HAOLOren **108.8 artikulua** honako hau dio: "*Karguaz jabetzeko unean eta beren kargu guztiak hartzeko, hautagai hautetsiek Konstituzioari men egingo diotela zin egin edo hitzeman behar dute, bai eta dagozkien lege edo erregelamenduetan aurreikusitako gainerako baldintzak beteko dituztela ere*".

Izaro Elorza Arregi andreak onartu egin du Alkate izatea (*). Horrela bada, kargu hori ere agindu du Udaltzaren aurrean, kargua berekin dakartzan ahalmen, eskubide eta betebeharrak guztiekin beteko duela adieraziz eta legeak horrela behartuta zin egin du. Horrenbestez, **Izaro Elorza Arregi andreak** hartu du Alkate-kargua.

(***) ZIN EGIN** edo **AGINTZEN** duzu zure kontzientzia eta ohorearen izenean, Alkate kargu honi dagozkion betebeharrak leialki beteko dituzula Erregeari leial izanez, eta Konstituzioa bete eta betearaziko duzula Estatuaren funtsezko arau gisa?

Kargua onartu ondoren, mahaiburuak zumitzezko txibita eman dio Izaro Elorza Arregi alkate berriari, eta adineko mahaiko kideak mahaitik irten dira, eta alkate berria da bilkurako lehendakaria.

Alkate-udalburuak hitza hartu du bertaratutakoei zuzentzeko.

Besterik ezean, 12:30ak zirenean, alkateak amaitutzat jo zuen bilkura, eta esandakoak jasota gera daitezkeen egin dut agiri hau alkatearen ontzat emanarekin.

O.E

Alkateak

Idazkaria

Izaro Elorza Arregui

Iñigo Roldan Catalan

4

